

II. TicketBAI Feria merkataritzarako, ostalaritzarako eta, oro har, enpresa txikientzako ireki da.

- *12 enpresatako profesionalek eta Gipuzkoako Bazkondeak bat egin dute TicketBAI ezartzea errazteko, oraindik horri heldu ez dioten enpresentzat.*

Donostia/San Sebastián – 2021eko irailaren 20a. Irailaren 26an eta 27an irekiko dira bigarren TicketBAI Feriaren ateak Gipuzkoako Bazkundearen egoitzan. 9 hitzaldiz eta 12 erakusketa-gunez osatutako programarekin, feriak gure lurraldeko merkataria, ostalari eta negozio txiki askotan TicketBAI ezartzeak sortzen dituen zalantzak eta kontsultak argitzeko aukera emango du.

Zalantzarik gabe, TicketBAIren ezarpenak zerga-sistemaren lotura Gipuzkoan duten jarduera-sektore guztiei eragiten die. Feriak profesionalekin biltzeko aukera emango digu, zalantzak argitzeko eta negozio bakoitzaren behar espezifikoetarako irtenbideak erakusteko: merkataritza, ostalaritza, ostatua, industria, gremioak, ile-apaindegiak, bidaiia-agentziak, obren kontrola, LTZ, fabrikazioa, garraioak, biltegiak, trazabilitatea. Zer esanik ez kaleko salmentaz, merkatu tradizionalak postuez edo artisauz.

Fakturatzea edo tiketak egitea zein prozesu erraza den ikusiko da, jarraipena egin daitekeena eta TicketBAI eta Datuen Babeseko baldintza guztiak betetzen direla ziurtatuz. Gainera, negozio bat Bulego Profesionalera eta Finantza irtenbideetara konektatzea zein erraza den ikusi ahal izango dugu.

Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoa osoan antolatutako jardunaldi informatiboetan 3.000 parte-hartzaile baino gehiago izan dira, eta TicketBAIren irtenbideek nola funtzionatzen duten jakiteko aukera eman zaie berriro ere nahi dutenei. Ferian, segurtasun eta datuen babesari buruzko jardunaldietan behin eta berriz planteatu diren gaiak aztertu ahal izango dira, fakturak egiteko modua zertan aldatzen den, sistema egokitzeko modurik dagoen, besteak beste berria erosi beharrik izan gabe.

TicketBAI ezartzeko, negozio guztiek 4 elementu izan behar dituzte: software homologatua, fakturazio-gailua, ziurtagiri digitala eta Internetarako konexioa. Gipuzkoako Bazkondeak badaki zaila dela enpresek irtenbide egokia eta negozio bakoitzaren beharretara egokitua aurkitzea, eta, horregatik, bigarren TicketBAI Feria jarri da abian. Azoka horretan, hainbat erakuslek beren irtenbide teknologikoak aurkeztuko dituzte, enpresetan ezartzeko. Bertaratzen direnek zalantzak argitu ahal izango dituzte, baita ezarri beharreko irtenbideak alderatu ere.

Ezarpenaren azkartasunak onurak dakarzkie merkataritzari eta ostalaritzari.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzeneko diru-laguntzen edo kenkari-portzentajeen bidez, TicketBAI ezartzeko erritmoa bizkortu nahi da, enpresarentzako kostua ahalik eta azkarren murriztuz. Azaroaren 30a da zuzeneko diru-laguntza eskuratzeko azken epea (1.000 €), eta oso gomendagarria da lehenbailehen martxan jartzea.

Parte hartzeko baldintzak honako hauek dira: merkataritzako edo ostalaritzako EJZren epigraferen batean alta emanda egotea, eta eskaera egin aurreko 15 egunetan TicketBAI sistemarekin gutxienez 15 tiket jaulki

izana. Ez dago inolako dokumentaziorik aurkeztu beharrik, eskaera zergabidea.gipuzkoa.eus-en bidez aurkezten baita, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berak egiaztatzen baitu informazioa.

Para más información:

Iñigo Muguruza

imuguruza@camaragipukoz.com

943 000 312 / 685750111